

## EUSKARAZKO GIZARTE SAREAK HIRI GUNEETAN

### **Iñaki Martínez de Luna eta Nekane Jausoro**

*Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz eta berak finantzatuta egindako ikerketa*

#### **SARRERA**

Jakina da Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE) -eta neurri apalagoan Nafarroako Foru Komunitatean (NFK) ere- azken hamarkadetan euskararen ezagutza asko hedatu dela, gaztetxoaren artean batez ere. Halere, euskara jakitetik euskara erabiltzera duela bi hamarkada susmatzen ez genuen tarte erraldoia dago, hiri guneetan batez ere. Horregatik, euskararen erabileran eta honen bultzakadan parte hartzen duten eragileak saiatuko gara aztertzen, erabilerari begira zerikusia duten zenbait arlo jorratuz: hizkuntz ibilbideak, gizarte sareak eta hizkuntza motibazioak, besteak beste.

#### **1.- GAUR EGUNGO HIZKUNTZ IBILBIDEAK<sup>1</sup>**

##### **Hizkuntz ibilbideak eta beren osagaiak**


Jaiotzaren unetik aurrera gizakiak bizitzen dituen une eta egoera ia guztietan hizkuntzak -edozein hizkuntzak- bere lekua du, baina gune/egoera batzuek lotuago daude hizkuntzei, horietan egiten diren hautaketek gizakiaren etorkizun soziolinguistikorako piztu berezia hartzen baitute. Gune/egoera berezi horiek dira aztertzen direnak ondoren aurkeztuko ditugun hizkuntz ibilbideetan.

Lau gune/egoera bereizten ditugu: ama hizkuntza, hezkuntza sistemako hizkuntza eredua, berezko harremanetako euskararen proportzioa eta euskara inguruan norberak garatutako estrategiak.

Bistan denez, osagai hauetako lehenengo hiruak oso loturik daude ohiko gizarterakuntzako edo sozializazioko gune eta eragileei, eta osagai hauetan nolabaiteko lehentasun kronologikoa antzematen da: familia da gizaki guztien lehen *jatorrizko* edo *berezko* gunea; ondoren, hezkuntza sistema dugu eta horren baitan hizkuntz ereduak kokatzen dira; azkenik, lagun koadrilak eta gainontzeko gizarte sareak ditugu, gure saio honetan *berezko harreman sare* izenarekin aurkezten dena.

Hiru gune/egoera hauek ez dira norberak aukeratuak izaten -lagun koadrila bera ere ikaskide edo auzokideekin osatzen da gehien bat- eta familia eta ingurune hurbilaren

eraginpean daude; gauzak horrela, gune edo eragile hauei dagozkien ezaugarri soziolinguistikoak ume eta gazteengan ezartzen dira, hau da, ezaugarri horiek gizabanakoak jasotzen ditu ia ezer erabakitzeke; jatorrizkotetasun edo berezkotasun soziolinguistiko horretan datza, hain zuzen ere, gune/egoera hauen berezitasun eta ezberdintasuna laugarren



gune/egoerarekiko.

Gure hizkuntz ibilbideen laugarren gune/egoera honetan *-norberak garatutako estrategiak* izenekoan, hain zuzen-, norberak hizkuntzaren inguruan ekimen eta eginbide propioak sortzen eta garatzen ditu (edo sor eta gara lituzke, bederen), familiak eta ingurune

<sup>1</sup> Atal hau Nekane Jausoro eta Iñaki Martínez de Lunaren lanetik hartuta da (Jausoro eta Martínez de Luna

sozialak emandakoak birsortuz nahiz horietatik aldenduz. Estrategiok ondorengo hiru arlo hartzen ditu nagusiki bere baitan: hizkuntza motibazioak, hizkuntzarekiko gaitasuna (ezagutza nahiz komunikazio magultasuna) eta hizkuntza hori erabiltzen duten harreman sareak. Hiru osagarri hauek elkarrekiko eragina adierazten dute.

Ez goaz, ordea, aipatu ditugun lau gune/egoera hauetako bakoitzaren definizio formalik eskaintzera, ez, bakoitzak hizkuntzaren ikuspuntutik eskaintzen dituen aukera ezberdinak aipatzera baizik:

- Ama hizkuntza: hiru urte arteko etxeko hizkuntza; euskara ala erdara izan daiteke, edota hizkuntza biok nahasian.
- Hizkuntza eredua: EAEaren kasuan, hezkuntza sistemak eskaintzen dituen lau eredu ezagunak: X eredu (batere euskararik gabekoa), A (erdaraz eta euskara ikasgaia), B (gaien erdia euskaraz eta beste erdia erdaraz) eta D (euskaraz eta erdara ikasgaia), hain zuzen.
- Berezko harreman sare euskaldunetako partaidetza: familiakide, ikaskide edota lagunek osatutako sareetatik zenbaterainoko presentzia du euskarak (hiru mailatan bereiztuta: handia, ertaina/baxua eta hutsezkoa).
- Norberak garatutako estrategiak dira lehen aipaturiko osagaietan oinarrituta: norberak daukan euskararekiko motibazio maila; duen euskararen ezagutza eta bestelako iaiotasun eta ahalmen linguistikoak; harreman sare euskaldunak hedatzeko ahaleginak (ala ahaleginik eza). Euskararen guztiz aldeko baldintzetatik beste muturrerainokoetara joan daiteke ikuspuntu honetan, etenik gabeko mailatze bat osatuz hiru aldagai horiek kontuan hartuta.


Lehenengo hiru gune/egoeretan nolabaiteko gizarte determinismoa ematen bada ere, laugarren honetan, aldiz, gizakiaren borondatea tartean dago indar bereziaz.

Zentzu horretan, aurreko gune/egoeretan gizakiak jasan izan duen hizkuntz eraginak (familiar euskara ikasi ala ez, eredu euskaldun batera bidalia izan ala ez, sare euskaldunetan bizi ala ez), aldatuak izan daitezke laugarren gune/egoeretan, beti ere, abiapuntu soziolinguistiko ezberdin horiek (ibilbide batzuek ala besteek) ematen dituzten baldintzak eta aukerak tartean egonda. Hau da, familia erdalduneko seme-alabak euskara erabili ahal izateko ahalegin handiagoa egin beharko du, hizkuntza hori ikasi eta gero familia barruan solaskide euskaldunik ez duelako; edo, adibidez, erdaraz ikasi duen familia euskaldun batekoak hitz egiteko gaitasuna izango du harreman informaletan, baina zailago egingo zaio euskaraz aritzea lan tekniko batean. Beraz, ibilbideetako gora-beherek ez dituzte

geroko euskarazko gaitasuna eta erabilera zeharo determinatzen, baina bai nabarmenki baldintzatzen. Alabaina, lau gune/egoera hauen ondoren lortzen diren euskararen gaitasuna eta erabilpena ez dira prozesu honen amaiera, ez, erabilpenak berak euskararekiko motibazioetan eta gaitasun mota guztietan ahortzi ezinezko eragina duelako (Sánchez Carrión “Txepetx” 1991): erabilera areagotzean motibazioak eta gaitasunak hobetuko dira, edo, aldiz, erabilpenik ezak atzerapausoa ekarriko du bi arlo hauetan.

### Hizkuntz ibilbide nagusiak

Aipaturiko ibilbide posibleen konplexotasuna azalpen honen argitasunerako desegokia eta bere luzapenerako neurritz kanpokoia izan daitekeelakoan, bost ibilbide nagusi aukeratu ditugu. Aukeraketa honen irizpidea bost ibilbide horiek koantitatiboki nahiz koalitatiboki euskara biziberritzeko duten garrantzi soziolinguistikoan datza.




## 1. IBILBIDEA

Ama hizkuntza, euskara; hezkuntza euskaraz; euskararekiko motibazio handiak, gaitasun handia hizkuntza horretan eta trinkotasun handiko 'berezko' harreman sare euskaldunak. Halako egoeretan, euskara sarritan erabiliko da. Dena dela, euskarazko hezkuntza indarrean jarri artean ez zegoen ibilbidea hau osatzerik; beraz, adin batetik beherakoen artean bakarrik topa dezakegun ibilbidea da.

Hizkuntz komunitate euskaldunaren muina da ibilbide hau eta duela gutxi arte jatorri euskalduneko arlo sozioekonomikoei (nekazaritza eta arrantzari, nagusiki) lotuta ematen zen; azken hamarkadetan ibilbidea hau hiri kutsuko guneeetan ere gero eta sarriago agertzen da: hiri guneeetako aniztasunak sare soziolinguistiko guztiz ezberdinak elkarren ondoan eratzea ahalbidetzen baitu.

## **3. irudia: euskaldunen euskara erabilera (%etan)**



Ibiltari hauek topa dezaketen (edo, hobeto esanda, topatzen duten) oztoporik handiena ibilbidearen laugarren gune/egoeretan datza.

Bizitzan aurrera egin ahala gazte izatetik heldua izaterako tartean gizarte sare berrietan txertatu beharko dutenean edota sare berriak sortuko dituztenean, gurea bezalako

gizartean euskara hutsez edota erdararekin batera (baina hizkuntza biak parekotasun batean) aritzen diren sareak oso urriak direlako. Hau da, unibertsitate mailako ikasketetan edo -are gehiago- lanean hastean gehienetan erdara guztiz nagusitzen da euskararen erabilera baztertuz; beste horrenbeste gertatzen da gizartean ematen diren harreman askotan:

“Oro har, elebidunek nagusiki euskaraz hitz egiten dute etxean nahiz etxetik kanpoko eremu jakin-jakinetan eta, euskaraz erdaraz hainbat, etxetik kanpoko gertuko komunitatean. Baina erabilera eremurik formalenetara jo ahala, erdara da nagusi.” (Aizpurua 1995, 114. or.)

3. irudian ikus daitezke esandakoaren adibide batzuk Aizpuruaren lana informazio iturri hartuta.

Beraz, hau izan daiteke ibilbide honen gune/egoerarik ahulena: nerabe eta gazteak izan bitartean gehienbat euskara aritu diren ibiltariak gazte-helduak izatera iristean erdal sareetan (erdarazko harremanetan) sar eta murgil daitezkeela.

Euskararen erabilpenak (edo erabilpenik ezak) eragina duela hizkuntza horren gaitasunean eta baita harekiko motibazioetan kontuan izanda, helduen mundura iristean ibiltari hauen biografia soziolinguistikoan norabide aldaketa bat eman daiteke: nagusiki euskalduna izan den bizimodu batetik gero eta erdaldunagoa izan litekeen beste bizimodu batera igarotzearena, hain zuzen.

## 11. IBILBIDEA

Familiari esker euskalduna izanda ere, hezkuntza sisteman erdarazko eredura joz gero, euskarazko gaitasun murriztua lortzen dute ibiltariok; hau da, familia eta lagunartekoan ibiltzeko hainbat gaitasun bai, baina ikasketetan erdaraz soilik lantzen dutenez gizarte modernoan beharrezkoak diren funtzio linguistiko askotan (familia bizitzatik at gelditzen diren hainbat funtzioetan) ez dute euskaraz behar bezalako gaitasunik lortuko eta halako funtzioetarako euskaraz duten muga honek hizkuntza hori ez erabiltzea ekarriko du.


Bestalde, eskola inguruan osatzen den lagun koadrila erdaraz arituko da, partaide guztiak edo gehienak euskaldunak balira ere. Ibiltari hauek, beraz, ez dute beharrezkoak diren gaitasunik edota harreman sarerik euskaraz egin ahal izateko.

Duela belaunaldi bat euskaldunek zuten ibilbide bakarra bazen ere, gaur egun EAEan ibilbide hau ez da ia ematen; Iparraldean, berriz, oraindik ere -eta, noiz arte?- ibilbide nagusia da. NFKaren kasua konplexuagoa da, aurreko beste bi gizarteetan aipatutako egoerak ematen direlako.

## 4. IBILBIDEA

Ibilbide honen ezaugarri nagusia familia giroan duen elebitasunean datza eta aniztasun honek hizkuntz magultasun handia ematen dio giro horretan hezitako gizakiari. Halere, ibilbide honetako familia batetik bestera hizkuntza bakoitzak duen pizua oso neurri ezberdinetan eman daitekeenez (bi hizkuntzen arteko oreka batetik erdararen nagusitasuneraino), ibiltariok batzuetan 5. ibilbidearekin egingo dute bat eta beste batzuetan, berriz, 7. ibilbideko lagunekin nahastuko dira.


## 4. irudia: hizkuntz gaitasuna ama hizkuntzaren arabera



Hau da, maiz familiak berak ez die ibiltari hauei euskarazko euskarri sendorik eskaintzen: hizkuntza gaitasun aldetik euskaraz zein erdaraz batzuetan antzeko trebetasuna lor daitekeela onartuta ere, gurasoetako batek erdara bakarrik dakielako edo euskaraz ongi moldatzen ez delako familian bertan eta horren inguruan sortzen diren harremanak erdarazkoak izango dira gehien bat (anai/arrebekin, osaba/izebekin, lehengusu/lehengusinekin eta lagunekin, adibidez); beraz, ibiltari hauen euskararen erabilera ahulezi nabarmena erraz ager daiteke.

Bestalde, sarri askotan gertatzen den bezala, ibilbide honetakoak familiaz kanpoko ingurune nagusiki erdaldunean kokatuko dira euren euskara erabilera kinka larrian jarriz.

## 5. irudia: neba/arreba euskaldunen hizkuntzen erabilpena ama hizkuntzaren arabera



4. eta 5. irudietan argi gelditzen da hizkuntz gaitasunean nahiz erabilpenean ama hizkuntzak zer-nolako garrantzia duen, batetik, eta ama hizkuntza euskara eta erdara, biak batera, izatean euskararen transmisioa eta erabilpena nola jaisten diren. Bistan da ama hizkuntza biak izateak duen ahulezia euskararen euskarri bezala.

Euskararen erabilerarako mehatxu hauek (eta hauek duten gaitasunerako ondorio ezkorra) ekiditzeko estrategia bereziak eraiki beharko dira familiaren baitan ikasitako euskarak sendo iraun dezan (lagun giro euskaldunean ibiltzen saiatu, etab.).

Bikote mistoak, (euskaldun batek eta erdaldun batek osatutakoak) oraingoz asko ez badira ere, gero eta ugariagoak direnez eta halako egoeretan euskararen aldeko arreta berezirik jarri ezean, mehatxu nabarmen bat bihur daiteke familia bidezko euskararen transmisiorako.


### 7. IBILBIDEA

Ama hizkuntza erdara duen ibilbide hau koantitatiboki oso garrantzitsua da gaur egun EAEan eta antzekoa den 8. ibilbidearekin batera ibiltari gehien biltzen dutenak dira.

Ustez hizkuntza bien irakaskuntza orekatua ziurtatu behar duen B Ereduak, gurea bezalako gizarte diglosiko batean euskararen gaitasun mugatua (erdaraz lortzen dena baino baxuagoa) besterik ez die ematen etxetik erdaldunak diren neska-mutilei, 6. irudian ikus daitekeenez.



## 6. irudia: hizkuntza gaitasuna ama hizkuntza erdera dutenen artean, hizkuntza ereduaren arabera



Ibiltariok -eta 8. ibilbidekoak ere- ez dute normalean harreman sare euskaldunik eguneroko bizitzan ikastetxe ingurutik jasotakoak izan ezik eta, bestalde, aipatu dugun euren euskararekiko gaitasun murriztua ere kontuan hartuta, euskararen ikuspuntutik etorkizun iluna dute.

Hau da, euskaldun berriok harreman sare euskaldunik ezean eta euren euskarazko gaitasun ahula direla medio, bizitzan aurrera egitean harreman sare euskaldun berrietan txertatzen ez badira atzerapauso linguistiko bat eman lezakete irmotasunik gabeko elebitasuna galdu arte.

### 10. IBILBIDEA

Ibilbide honetakoak bai jatorriz eta baita suertatutako gizarte ingurunearen arabera erdaldun petoak ditugu eta egoera horretatik irtetzekotan norberaren motibazio eta ahalegin berezien ondorioa izango da gehienetan. Horietaz gain, aurreko hamarkadetan hezkuntza sisteman ere gaztelania hutsezko ikasketak burutzen zituzten bitartean, gaur egun euskarara hurbiltzen dira euskara derrigorrezko gaia bezala ikasten dutelako -EAEan bederen-; derrigorrezko hurbilpen honen ezean erdaldunok zaila dute euskararen berri izatea eta hizkuntz honen ezagutza maila (apal) batera iristea, baina besteengan aldiz derrigorrezkotasun horrek euskararen kontrako jarrera sor dezake.

Ibilbide honetan atzerapauso demografiko nabarmena ari da ematen (gero eta gutxiago dira hemengo ibiltariak), baina, halere, badu bere pisua euskal kutsurik gabeko giro soziokulturaletan, bai EAEan, NFkan eta, batez ere, Iparraldean.

Ibilbide nagusiak banan bana aipatu ondoren ibilbideen horien bukaeran euskararen oso erabilera ezberdinak -eta erabilerarik eza edota erabilerarekiko aurkako jarrera- topa daitezke. Lehen esan dugun bezala, aukera zabal hau aurreko ibilbideei lotua badago ere ez dago guztiz beren menpe, ematen den euskararen erabilpena (edo erabilpenik eza) norberak dituen hizkuntza honekiko jarrera eta gaitasunean nahiz garatutako harreman sare euskaldunetan datzalako, hau da, *norberak garatutako estrategietan*, hain zuzen.


Atal hau bukatzeko gogorarazi behar dugu hizkuntza baten erabilpenak (edo erabilpenik ezak) hizkuntza horren gaitasunean nabarmenki eragiten duela (Sánchez Carrión “Txepetx” 1991) eta, beste aldetik, hizkuntza horretan dauden harreman sareei lotua dagoela. Hau da, motibazioek, gaitasunak, harreman sareek eta erabilerak berak elkarri eragiten diote norabide guztietan: baten edo batzuen gorakadak ala beherakadak beste guztiak norabide berberatik eramango ditu.

## 2.- EUSKARAREN ERABILPENA ETA GIZARTE SAREAK HIRI GUNEETAN

### Euskaldunak hiriko *bakardadean*

*Jendetza bakartasunean* ez da bakarrik Erich Fromm psikoanalista alemaniar ezagunaren hausnarketa psikosozial eta ospetsuaren izenburu ezin egokiagoa, ez, hiri guneetako errealitate gordina baizik, hiri gizartean edonor izan baitaiteke jendez inguratutako bakardadean. Hiri guneetan, herri txikietan ez bezala, gizakumeek ez dute elkar ezagutzen egunero elkarren ondoan igaro edo bizi arren.


## 7. irudia: E.A.E.ko biztanleriaren eta euskaldunen portzentaiak udalerrri tamainaren arabera



Beste horrenbeste gertatzen da euskaldunekin hiri guneetan ere, hau da, elkarren ondoan bizi arren elkar ezagutzen ez dutela. Adibidez eta 7. irudian ikus daitekeenez, euskaldunen %27a bizi da 40.000 biztanletik gorako udalerrietan, hau da, euskaldun proportzio baxuko (%12a) hiri kutsuko udalerrietan (Eustat 1996).

Are zehatzago, 8. irudiko EAEko udalerrri nagusi horietan dauden euskaldunen proportzioei erreparatuz -haien artean sartzen diren Gipuzkoako hiru udalerrietakoak salbu-, hiri guneeetan euskaldunak soziodemografikoki isolatuak bizi direla esateko parada badago, leku gehienetan hamar biztanletik euskaldun bakarra ozta ozta aurki dezakegulako. Bistan dago, beraz, asko direla *bakartasun soziolinguistikoan* bizi diren euskaldunak.

## 8. irudia: euskaldunen proportzioak E.A.E.ko 40 mila biztanletik gorako udalerrietan



### Hiri gunek eta gizarte sareak

Baina, hori horrela izanda ere, neurri batean ematen den gertakizuna da, ez mugarik gabe eta pertsona guztien artean. *Bakardade* horren atzean pertsona batzuen arteko harremanak egon badaude, denen artekoak badira ere. Hau da, multzoka, egoera batzuen inguruan gizabanakoak biltzen dira euren arteko harremanak sortuz, eta harreman horiek sare ezberdinak osatzen dituzte:

“Gure eguneroko bizitzan gizarte sareak sortzen eta osatzen ari gara etengabe. Egoera askotan gure portaera besteengana zuzendua da eta baita alderantziz, hau da, besteen ekintzak gu geu gaituzte erreferentzia edota helburu. Jaiotzetik aurrera gizarterakuntzan (sozializazioan) eta gizarte

lehen-taldeetara (guraso, senide, lagun, etab.) hurbiltzean gizarte sare askotako partaide izaten hasiak gara eta hazterakoan, urteetan zehar aldatzen doazen geure sare propioak osatzen ditugu. Gizabanakoak besteekin harremanetan jartzean gizarte sareak eraikitzen eta osatzen ditu bere inguruan, eta beste horrenbeste gertatzen da instituzio (enpresa, elkarte,...) baten inguruan.” (Martínez de Luna, Jausoro, Berrio-Otxoa eta Idirin 1998)

Hirietan, beraz, harreman sare asko izaten dira kokagune edota iharduera zehatz batzuen inguruan. Bestalde, harreman horiek komunikazio kode baten (batzuen) bidez gauzatzen dira, kasu gehienetan (ez derrigorrez) kode hori hizkuntza bat izanik. Iritsi gara, bada, gogoeta honetan guztiz funtsezkoak zaizkigun osagaietara: harremanak eta berauek gauzatzeko erabiltzen den hizkuntzara.

“Harreman horiek hizkuntza baten bidez burutzen direnez, uste dugu gizarte sareak aztertzea ezinbestekoa dela hizkuntzaren erabilpena era osatuan ulertu nahi bada. Hizkuntza baten erabileran faktore askok eragiten dute, eta, era berean, argi dago hizkuntzaren erabilera gizarte dimentsioko zerbait dela ere eta ez bakarrik banakakoarena. (...) Hizkuntzaren erabilera interakzioan sortu eta hedatzen da, hori dela eta, interakzioaren ikerketa funtsezkoa zaigu erabilera edo erabilerarik eza aztertzeko orduan. Eta ezinbestean, interakzioa aipatzen dugunean harremanak aipatu behar ditugu, hots, gizarte sareak.” (Martínez de Luna, Jausoro, Berrio-Otxoa eta Idirin 1998)

Gauzak horrela, *euskaldunen hiriko bakardade* hori ez da sortzen euren proportzio demolinguistiko urritik bakarrik, zeren Gasteizko 15 mila, Donostiako 46 mila edo Bilboko 35 mila euskaldunek (Eustat 1996), adibidez, jende multzo potoloak osatzen baitituzte; *euskaldunen hiriko bakardade* horren arrazoirik nagusia haien arteko harremanik ezean datza. Imajina dezagun, bestela, halako pertsona kopuruak elkarlanean hasiko balira hiri horietan zer-nolako indar erakutsiko lukete!

Hiri guneetako *euskaldunen bakardadea* euskal hiztunen komunitatearen ahulezian datza; Txepetxek dioten bezala, hiztun komunitatearen trinkotasuna tartean dago: hiri guneetan dauden euskaldun kopuru garrantzitsu horiek elkarren arteko harremanetan balira harreman sare euskaldunak osatuz, euskal hiztunen komunitatea sendoa litzateke.

Horregatik, beharrezkoa zaigu harreman sareen ikuspuntutik abiatzea eta zeregin honetan *gizarte sareen metodologia* guztiz lagungarria da:

“Gizarte sareen metodologiaren balioa azterketa soziolinguistikorako ematen duen kontzeptualizazioan eta analisi enpirikorako aportazioan datza. Batetik, sareen kontzeptuak gizarte egituraren harreman egonkorak edo erregularrak kontuan hartzen dituelako eta, bestetik, harreman hauen egoerei eta osagaiei buruzko araketa eta definizio zehatza burutzen dituelako. Bestalde, metodologia honek hizkuntzaren erabilera harreman ingurune egituratu batean kokatzen

du eta, beraz, harreman horien egitura eta ezaugarriak aztertuz hizkuntzaren erabilera dauden eragileak era osatuagoan azter ditzakegu. Azkenik, partaide bakoitzaren ezaugarrien berri ere jaso daiteke, informazio mota honekin azterketa hornituz. Beraz, gizarte sareen metodologiak hiru motatako informazio eskaintzen digu batera: partaide bakoitzarena, gizarte egiturarena eta, azkenik, lehenengok gizarte egitura horretan sortzen dituzten harremani buruzkoa. Hiru informazio iturri horietatik abiatuta, hizkuntzaren hautaketan edo erabileraren agertzen diren eraginak era osatuagoan aztertzea ahalbidetzen da.” (Martínez de Luna, Jausoro, Berrio-Otxoa eta Idirin 1998)

Aitortu behar da, halere, kontziente nahiz intuitiboki, *gizarte sareen kontzeptua eta metodologia* ezagututa ala ezagutu gabe, euskalgintzan dihardutenek euskaldunen arteko sareak eraikitzen saiatzen ari direla azkeneko urteetan, asmo horren atzetik elkarte eta topagune asko sortuz. Bide honetatik euskalgintzaren ahaleginek aurrerapauso estrategiko bat eman dute: hasiera bateko euskalduntze eta alfabetatze euskara erabiltzeko topaguneak sortzera, hain zuzen, eta horixe bera da *hiri guneetako euskaldunen bakardadea* gainditzeko eman behar den ezinbesteko urratsa.

### **Hiri guneetako euskaldunen sareak**

Aurrerago ikusi dugunetik ondorioztatzen dena hauxe da: lehenik eta behin, **hiri guneetako euskaldunek elkarren berri izan behar dutela**. Hau horrela ez bada, hau da, aurrean dagoen pertsona euskalduna denentz jakin ezean, gurea bezalako egoera diglosikoetan gizarte honetako hizkuntza nagusira (gaztelaniara) jotzen eta joko da, horren ondorioz euskaldunek euren artean erdara erabiliz.

Bestalde, denok dakigu erabilera ohitura eta joera bat aldatzeak zenbat kostatzen duen eta erdaraz elkar ezagutu duten euskaldun horiek biok euskaldunak direla jakitera iristekotan, euskararen aldeko kontzientzi militante sendorik tartean ez balego oso zaila izango lukete euskarara aldatzea. Beraz, euskaldunen arteko hasierako harremanak euskaraz izan daitezen egoera aproposak sortu behar dira eta horretarako euskaraz aritu daitekeen topaguneen beharra badago.

Euskarazko harreman horiek sortu eta bultzatzerakoan, **gizarte harremanek edukin bat izan behar dutela** ezin da ahantzi, alabaina. Pertsonen arteko harreman egonkorrek beti dute helburu bat eta hizkuntza harreman horiek burutzeko baliabidea baino besterik ez da; beraz, euskaldunentzako topagune berriak proposatzerakoan *edukina* aukeratu beharko da lehendabizi (asti denborakoa edo dena delakoa). *Edukina* honen arabera talde bat osatuko eta sendotuko da, gai horretaz interesik ez dutenak horrez kanpo nahita geldituko diren bitartean.

Era honetan euskaldunen arteko **sareak sortuko dira, ahalik eta gehien eta ahalik eta arlo ezberdinenetan**. Horrela, joera eta zaletasun ezberdinetako euskaldunek aukera izango dute multzo batean ez bada gogokoagoa duten bestean sartzeko.

Mota honetako multzoek *edukin* mugatu bat baldin badute hauxe bera izango da haien arteko banaketaren arrazoia. Halere, multzo ezberdinetako partaideek interes, zaletasun eta joera berdintsua izan ditzakete euren multzoek duten *edukinez* kanpo; horregatik, oso beharrezkoa da **multzoen arteko komunikazioa sortzea**, zeren eta, banaka bada ere, multzo desberdinak (edo beren partaideetako batzuek, behinik behin) elkarlanean has daitezke *beste edukin koiuntural edo berri batzuen* inguruan, horrekin sare berri bat sortzeko ateak irekiz.

Aurreko iradokizunen inguruan euskarazko sareak hedatzearen beste proposamen edo ñabardura bat ere egin daiteke. Askotan, oso zaila izango zaigu euskarazko harreman sare berriak abian jartzea eta, gainera, erdaraz daudenekin lehian sartuko lirateke (iharduera berbera eskainiz, adibidez). Halakoetan, sare berriak eraiki partez erdara nagusia den sareetan euskara sartzeari proposa daiteke (ematen diren baldintzen arabera, gaztelaniaren orde edota honekin batera).

Euskarazko topagune berriak sortuz harreman sare euskaldunik gabeko euskaldunek hutsune hori ase dezakete gogokoak dituzten ihardueretan beste euskaldunekin burutzen dituzten bitartean.

### **Hizkuntz ibilbideak eta euskaldunen sareak**

Halere, euskaldunen arteko sare berriak sortzeak ez du eragin berdina izango ibilbide ezberdinetako euskaldun guztien artean.

Adibidez, 1. ibilbideko euskaldunak dira jatorrizko harreman euskalduneko sareak osatzen dituztenak, baina sare hauek familia eta lagunarteko arloetara mugatzen dira gehien bat.

Ibilbide hau azaltzean esaten zen bezala, hiri guneeetako bestelako gizarte arloetan (lan munduan, aisialdi guneeetan, harreman formaletan...) gaztelaniaz dira harremanak, errealitate horretaz ez zalantzarik eta ezta galderarik sortu gabe. Egoera diglosikoak, berriz ere, bere "normaltasuna" ezartzen du. Salbuespena euskara inguruan hiri guneeetan sortu diren euskara inguruko instituzioak edota lan esparruak, euskaltegiak, komunikabide euskaldunetako eta euskaraz nagusiki irakasten den ikastetxeetako lan harremanak ere euskarazko sareak osatzen baitituzte. Baina *euskararen ezaugarri* edo *ikurrik* ez daukan guztiak erdaraz funtzionatzen du.

Honegatik, 1. ibilbideko euskaldunek ere euskarazko harreman sare berriak behar dituzte, era horretan eta nahi izanez gero beren gizarte jarduera euskaraz osatu ahal izateko; hau da, status ofiziala duen bertako bi hizkuntzetatik batean aritzeko.

Baina, 1. ibilbideko euskaldunentzat eskubide bezala aldarrikatzen dena, beste ibilbide euskaldunetan premia eta beharra bihurtzen da: ibilbide hauetako euskaldunek harreman euskaldunik ez badute edo -baldin badute- harreman horiek ahulak badira (euskarak pizu gutxi duenean beraien bizitzan), euskaraz duten gaitasuna atzerapausoa emateko tinkan jartzen baita. Beraz, gainontzeko ibiltariak euskaldunak izaten jarraitzeko harreman sare euskaldunen beharra dute eta, jatorriz honelakorik ez dutenez gizarte mailan dauden edo sor daitezkeen berrietan txertatu beharko dute.

Neurri batean edo bestean -kalitate handia edo halamodukoarekin- *euskaldun berriak ekoizteko lantegiak* (hezkuntza sistema eta euskaltegiak) martxan dauden une honetan, *ekoizpen horrekin* zer gerta daitezkeen pentsatu beharko dugu. Zer-nolako euskaldunak ari gara sortzen? Zer-nolako etorkizun soziolinguistikoa izango dute?

1. Taulako *Oinarrizko Elebitasun Tipologian*<sup>2</sup> ikus daiteke zer-nolako euskaldunak diren ama hizkuntza erdara duten 13-14 urteetako neska-mutilak hizkuntza ereduen arabera. Lehen azaldutako ibilbideak kontuan hartuta, B eredukoak gure 7. ibilbidekoak lirateke eta D eredukoak gure 8. ibilbidekoak.

---

<sup>2</sup> 'Elebidun hartzaile euskaldunak' euskara ondo daki, baina erdaraz hitz egiteko zailtasunak ditu; 'Euskal elebidunak' hizkuntza biak dakizki ondo, baina euskara erdara baino hobeto; 'Elebidun orekatuak' hizkuntza biak dakizki ondo eta berdintsu; 'Erdal elebidunak' hizkuntza biak dakizki ondo, baina erdara euskara baino hobeto; 'Elebidun hartzaile erdaldunak' erdara ondo daki, baina euskaraz hitz egiteko gaitasunik ez du. (Martínez de Luna 1995)



1. Taula: OINARRIZKO ELEBITASUN TIPOLOGIA ETA HIZKUNTZA EREDUA, AMA HIZKUNTZA ERDARA DUTEN GAZTETXOENTZAT

| OINARRIZKO ELEBITASUN TIPOLOGIA | "A+X" EREDUAK | "B" EREDUA | "D" EREDUA |
|---------------------------------|---------------|------------|------------|
| Elebidun hartzaile euskalduna   |               |            | 1          |
| Euskal elebiduna                |               |            | 6          |
| Elebidun orekatua               | 1             | 13         | 31         |
| Erdal elebiduna                 | 14            | 68         | 55         |
| Elebidun hartzaile erdalduna    | 60            | 16         | 4          |
| Erdaldun elebakarra             | 24            | 3          |            |
| ED/EE                           | 1             |            | 2          |
| GUZTIRA                         | 100           | 100        | 100        |

Bi ibilbide horietako neska-mutil gehienak euskaldunak izatera iristen badira ere (halere, batzuek euskalduntzat hartzen ez diren *elebidun hartzaile erdaldunen* artean gelditzen dira), euskaraz lortzen duten gaitasuna ez da oso sendoa, neska-mutil gehienak elebitasun tipologian horretan euskalduntzat ematen den sailkapen apalenean agertzen direlako (*erdal elebidunen* kategorian, hain zuzen). Gauzak horrela, eta 7. nahiz 8. ibilbideen harreman sare euskaldunen gabezia ezagututa, ibiltariok sare euskaldunetan txertatzeko ahalegin berezirik egiten ez badute (*norberak garatutako estrategiarik* ezean) lehen aipatutako euskararekiko atzerapausoaren atarian egongo lirateke hezkuntza sistematik aldegin ondoren, *elebidun hartzaile erdaldunen* multzora denbora gutxian pasatuz.

Beraz, hezkuntza sisteman neska-mutil erdaldunak euskalduntzeko ahaleginek porrot egingo lukete kasu gehienetan, prozesu horretatik ondoriosta daitezkeen euskararekiko frustrazio eta jarrera ezkorrak ahaztu gabe. Nabarmena da B eta D ereduetan ikasitako euskara bermatzeko 7. eta 8. ibilbideetako euskaldun berriek duten gune eta harreman sare euskaldunen premia, baina honetaz ez dira jabetu ikasle horiek, ez euren gurasoak ere.

### 3.- EUSKARAREN ERABILPENAREN ALDEKO MOTIBAZIOAK

#### Euskaldunen motibazio geldoak

Euskararen aldeko jarrera duten (aipatutako seme-alaben gurasoak, adibidez, eta baita euskararekiko nolabaiteko atxikimendua dutenek ere) gehienek halako kezkarik ez izatea ulergarria da. Euskararen aldeko militantzia sutsurik ezean euskaldun gehienak eguneroko zereginetan erdararen menpe bizi dira patxada ederrean; eta axolagabekeri hori areagotzen da erdaldun batzuen artean.

Euskaldunekin jarraituz, Galbraith-en *Asebetetako*en *Kultura* kontzeptua guztiz aproposa dugu euskara/erdararen aurreko jarrera geldoa ulertzeko (Galbraith 1992); hauxe da kontzeptu horren muina laburki esanda: bizimodu erosoaren daramaten gizarte multzoek patxada hori astindu eta arriskuan jar lezaketen edozer aldaketari muzin egiten diotela.

Eta mendebaldeko herri garatuetan ematen den jarrera hedatu horretan Euskal Herrian ere euskara normaltzearekin bete betean errepikatzen da: hizkuntza erabilera aldatzeko (gazteleratik euskarara pasatzeko) sor daitezkeen nekeza edo iskanbila guztien aurrean *asebetetako* gizarte multzoek gorrarena egiten dute.

Euskal gizartean euskararen aldeko jarrera (itxuraz) nagusia bada ere, jarrera hori geldoa da, konpromezurik gabekoa; jarrera izatetik konpromezu izatera eman beharreko pausoan asmo horren ahulezia agerian gelditzen da. Norberaren edota norbere familia/lagunen euskararen aldeko ahalegin edota sakrifiziorik eskatzen bada uko egiten zaio, motibazioa eta militantzia handienetako bakan batzuek izan ezik.

Ibilbideen bukaera aldean kokatzen genituen *Norberak garatutako estrategiak* izeneko gune/egoera azaltzean azpimarratzen genuen, ibilbide ez oso euskaldunetatik joanez gero, motibazioen beharra dagoela euskara erabiltzera iritsi ahal izateko. Ideia bereberean sakondu nahi dugu oraingo honetan.

Hirurogeigarren hamarkadatik hona euskararen alde bereziki bultzatu duten *motibazioak sinboliko-identitariak* izan dira: “Euskal Herriaren jatorrizko hizkuntza”, “Gure hizkuntza nazionala”, “gure kulturaren zutabea”, etab. Motibazio mota hau indar handikoa da (berari esker eman dira aurrerapauso handiak) eta gaur egun komunitate nazionalistako euskaldun eta erdaldunen artean ere oso hedatua dago. Halere, motibazioek beren asmoak gauza ditzaten askotan gainditu ezinezko oztopoa aurkitzen dute eguneroko errealitatean. Errealitate erdaradunak bere pisua ezartzen du, asmo horiek baretuz edota ezabatuz. (Martínez de Luna eta Jausoro 1996)

Horrez gain, euskal nazioaren sentimendua barneratu ez dutenengan motibazio mota hau normalean ez da emango; beraz, Euskal Herriko biztanleriaren zati handi bat motibazio sinboliko-identitarioaren eraginetik at geldituko da.

Bestalde eta Txepetxek dioenez, motibazioak eraginkorrak izan ahal izateko nahikotasun maila batera iritsi behar dira (Sánchez Carrión “Txepetx” 1991) eta euskal nazioaren kontzientzia duten pertsona askorentzat motibazio *sinboliko-identitarioak* ez dira nahikotasun mailara horretara iristen: euskararen aldekoak izanda ere (euskara ikasten hasi arren) eta arrazoi asko direla medio, euskara ondo ikasteko edota erabiltzeko gaitasun nahikoa inoiz lortu ez dutenak asko dira.

Nahikotasun maila horretara iristeko modua motibazio horiek areagotzea da, eta hori lortzeko euskararekiko jarrera dutenak euskararen eta euskaldun berrien etorkizun ilunaz jabetu behar dira. Arestian aipatzen ziren euskaldun berriei buruzko kezkek euskaltzaleengana zabaldu behar dira, era horretan euskararen aldeko ihardueretan (euskarazko ingurune eta sare berrietan) euskaldunen parte hartze handiagoa lortuko delakoan. Hau da, euskaldunei ohartarazi behar diegu euskararen etorkizuna kinka larrian dagoela dauden patxada antzutik aterako badira.

Horrekin euskarak gizartean duen presentzia areagotuko balitz hizkuntza horrekiko interesik ez dutenek ere ardura gehiago izango lukete, bide batez.

Dena dela, *motibazio sinboliko-identitariak* kanpo badaude bestelako motibazio motak ere, nazio kontzientziarik ez dutenengan eragiteko aproposak izan daitezkeenak. Ekin diezaiozun, beraz, bestelako motibazio motak azaltzeari.

Has gaitzen *motibazio pragmatikoekin*; hauek bi azpimultzotan bana daitezke:

- *pragmatiko integratzaileak*: hizkuntza hori erabiltzen duten komunitate, herri edo giza talde bateko partaideak sentitzeko; hizkuntza ez jakiteagatik halako guneetatik kanpo ez gelditzeko.
- *pragmatiko instrumentalak*: hizkuntza ikastea edo horrekin lortutako gaitasuna lanpostuz hobetzeko edo lanpostua bilatzeko erabiltzen denean. Azken urteotako esperientziaren arabera, hauek ez dute kemen handirik adierazi euskararen erabilerara bultzatzeko Administrazio Publikoaren kasuan, baina ez dugu uste hori beti horrela izan behar denik.

Azkenik, *arrakasta motibazioak* ditugu: gizarte eredu arrakastatsuen ‘*antzeratzaileena*’. Norberak duen gizarte ereduen (kirolari, politikari, artista, enpresa gizon edo emakume, aberats eta abar) portaera errepikatzen bultzatzen duena da, eta hizkuntza portaera ere horretan sartzen da. Bestela esanda, gizartean arrakasta lortzen dutenek egiten

duen hizkuntza hautaketa (euskara ala gaztelania) *antzeratzaileek* ere errepikatzen bultzatzen ditu motibazio mota honen bidez. Halako motibazioek ez dute pisurik izan gure artean gizartearen goiko kokapenetan euskara bigarren maila batean dagoelako.

Bi motatako *motibazio pragmatikoe*k eta baita *arrakasta motibazioek* badute euskaren normalizazioaren aldeko lanetan ezaugarri lagungarri bat: *motibazio sinboliko-identitariak* ez bezala, *motibazio pragmatikoak* eta *arrakasta* eredu sozialari dagozkionak iritsi daitezkeela euskal nazioaren ideiarekin bere burua identifikatzen ez dutenengana ere; hau da, biztanleria oroarengan eragin dezaketen motibazioak dira eta horrek normalizazio linguistikoari bidea zabal diezaioke.

Orain arteko *motibazio pragmatikoe*k nahiz *arrakasta motibazioek* euskararen erabilera bultzatzeko ez badute eragin nabarmenik izan, etorkizunean protagonismo handiagoa behar dute euskara normalizatuko bada. Halere, motibazio horien garrantzia eta protagonismo handiagoa ez da sortuko euskararen aldeko jarrera boluntarista hutsetatik, gure egunerokotasunean euskarak irabaziko duen garrantzitik baizik: euskaldunen arteko harreman sare euskaldunak hedatzen hasita eta gizarte ospea duten kokapenetan euskara sartzeraino, hain zuzen ere. Horrekin euskara normalkuntzaren bidean jarriko genuke, bere garrantzia nabarmenagoa lortuz eta, bide batez, bere premia erdaldunengana ere helaraziz.

#### 4.- ONDORIOAK

Egindako gogoetatik ondorio gisa atera daitezkeen hainbat ideia bilduko ditugu ondorengo lerroetan, eta zeregin horretan jaso beharreko mamia hiru puntutan laburtuko dugu:

- Ikusitako hiri gunetako ibilbideetan euskara tartean dagoenean -neurri batean zein bestean- agerian gelditzen da hizkuntz horren erabilera sendotu eta hedatzearen premia. Eskakizun honek ibilbide euskaldunetako ibiltariak edozein gizarte arlotan euskaraz aritzeko duten eskubidea gauzatu ahal izateko balioko duen bitartean, ibilbide erdaldunagoetan, aldiz, euskaraz lortutako gaitasuna bermatzea izango du helburu; honen ezean kili-kolo duten euskara ezagutza mailan atzerapausoa ekarriko zuen euskaldun askorengan eta, honekin batera, euskararekiko frustrazioa eta distantziamentua.
- Euskaldunen (sendo eta ahulenen) euskara erabilpena bultzatzeko topagune eta harreman sare euskaldunak sortu eta hedatu behar dira, gizarte esparru guztietan eta lehentasun estrategiko baten arabera. Halere, euskaldun gehienek euskararekiko duten patxadaz jabetuta, euskaltzale sutsuenak bakarrik bilduko direla harreman horietan aurikusi behar dugu; baina hori horrela izanda ere ahalegin hori baliagarria da guztiz, iharduera aitzindari horrekin bide berriak urratzen direlako eta euskarazko harreman sare berrien funtseak ezartzen direlako.
- Topagune euskaldun horien inguruan euskaldunak bil daitezten euskararen aldeko motibazioa berpiztu beharko da. Horretarako, eta hizkuntza berreskuratzeko eman diren aurrerapausoak garrantzitsuak izan arren, euskararen egungo egoeraren balorapena eginez eta horrek daraman norabideari buruzko gogoeta lasaia eta arduratua bultzatuz, euskararen etorkizuna kinka larrian egon daitekeela jakinarazi behar zaie euskaltzale sutsuenei. Bestalde, euskara horren biziki sentitzen ez dutenengan iristeko, *motibazio pragmatiko* (integratzaile nahiz instrumentala) eta *arrakasta motibazioen* bidez jokatu beharko da, estrategia honetan azpigizarte euskaldunaren protagonismo sozial erakargarria guztiz funtsezkoa izanik.

## ERABILITAKO ERREFERENTZI BIBLIOGRAFIKOAK

AIZPURUA, Xabier (1995) Euskararen jarraipena, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

EUSTAT (1996), Euskal urtekari estatistikoa 95/Anuario estadístico vasco 95. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

GALBRAITH, John Kenneth: La cultura de la satisfacción. Ariel, Barcelona 1992.

JAUSORO, Nekane eta Iñaki MARTÍNEZ DE LUNA (1998) Las redes sociales de los jóvenes euskaldunes: de la competencia lingüística al uso del euskera. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetzarako lana (argitaratu gabea).

MARTÍNEZ DE LUNA Iñaki, Nekane JAUSORO, Kontxesi BERRIO-OTXOA eta Ibon IDIRIN (1998), “Gizarte sareak eta hizkuntzaren erabilera: euskarari eta gaztelaniari egokitutako hurbilketa”, Bat Soziolinguistika, 26. zbk.

MARTÍNEZ DE LUNA Iñaki, Nekane JAUSORO (1996), “Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean” in Bat Soziolinguistika Aldizkaria 18. zbk.

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki (1995) “Etorkizuna aurriztuz: Euskal Autonomi Elkarteko gaztetxoaren egoera soziolinguistikoa” in Euskara, atzo eta gaur, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza (CD Rom-a).

SANCHEZ CARRION, Jose María (Txepetx) (1991): Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas. Donostia-San Sebastián, José María Sánchez Carrión (Argi.).